

# .eus Abiarazte-politika

2.0 Bertsioa - 2014ko irailak 5

## Edukia

### 1. Erregistro-politikaren onarpena

### 2. Definizioak

### 3. Baldintza orokorrak eta abiaraztearen laburpena

### 4. Itxiera-dataren Sunrise aldia

4.1 Sunrise aldiko hautagarritasunaren eta izen-hautaketaren baldintzak

4.2 Balioztapena

4.3 Iraupena

4.4 Gatazken konponketa

4.5 Sunrise aldiko gatazkak konpontzeko politika

### 5. Babes-erregistroak

5.1 Sunrise aldiko hautagarritasunaren eta izen-hautaketaren baldintzak

5.2 Balioztapena

5.3 Iraupena

### 6. Interes publikoko erregistro-aldi mugatua

6.1 Hautagarritasunaren eta izen-hautaketaren baldintzak

6.2 Balioztapena

6.3 Iraupena

6.4 Gatazken konponketa

6.5 Lehentasuna

6.6 Kategoria honetan esleitutako edo ukatutako domeinu-izenen gatazkak

### 7. Tokiko marken erregistro-politika mugatua

7.1 Hautagarritasunaren eta izen-hautaketaren baldintzak

7.2 Balioztapena

6.2.1 Tokiko marken balioztapena

6.2.2 Adierazpen geografikoen balioztapena

7.3 Iraupena

7.4 Gatazken konponketa

7.5 Lehentasuna

7.6 Kategoria honetan esleitutako edo ukatutako domeinu-izenen gatazkak

### 8. Beste eskubide batzuen erregistro-aldi mugatua

8.1 Hautagarritasunaren eta izen-hautaketaren baldintzak

## 8.2 Balioztapena

## 8.3 Iraupena

## 8.4 Gatazken konponketa

## 8.5 Lehentasuna

## 8.6 Kategoria honetan esleitutako edo ukatutako domeinu-izenen gatazkak

# 9. Erregistro librea (lehentasun-eskubiderik gabeko izenak)

## 9.1 Hautagarritasuna eta izen-hautaketa

## 9.2 Iraupena

## 9.3 Gatazken konponketa kategoria honetan

## 9.4 Lehentasuna

## 9.5 Kategoria honetan esleitutako edo ukatutako domeinu-izenen gatazkak

# 10. Hautagarritasunaren eta izen-hautaketaren baldintzen betearazpena

## 1. Erregistro-politikaren onarpena

Erregistro-politika honek abiarazte-aldiko .eus domeinuaren izen-erregistroak arautzen dituzten baldintzak azaltzen ditu.

1.1 Abiarazte-aldian, .eus domeinu-izen bat erregistratzea eskatzen baduzu, jarraian adierazitakoen mende egotea onartzen duzu legez:

- a. Abiarazte-politika hau eta erreferentziaz hemen sartu den .eus erregistro-politika orokorra ( <http://domeinuak.eus/en/araudia> webgunean ikusgai);
- b. .eus domeinu-izena eskatzeko erabilitako akreditatutako erregistro-babesleak emandako erregistro-hitza; eta
- c. ICANNek noizbehinka agindutako beste edozer politika.

1.2 Honen bitartez adierazten eta bermatzen diguzu, zure erregistro-hitza zure .eus domeinu-izena babesten duen akreditatutako erregistroarekin egindako adierazpenak osoak eta zehatzak direla.

1.3 Zu zara zure .eus domeinu-izenaren erregistroak eta erabilerak Erregistro Politika hau betetzen dutela zehaztearen erantzule bakarra.

## 2. Definizioak

2.1 Erregistro-politika honetan:

- a. «**Akreditatutako erregistradorea**» erregistro-operadorearekin hitza sinatu duen eta .eus LMDn izenak erregistratzeko baimena duen ICANNek akreditatutako erregistradorea da («**erregistro-erregistradore hitza**»).

- b. «**Eskuragarritasun orokorra**» abiarazte-aldien ondoren hasitako erregistro-epe orokorra da; bertan, eskuragarri dauden .eus domeinu-izenak erregistratzeko kualifikatuta dauden erregistratzaileen eskura jarriko dira iritsiera-ordenan, .eus erregistro-politika orokorrean deskribatutako moduan.
- c. «**.eus erregistro-politika orokorra**» edota «**erregistro-politika**» erregistro-operadorearen webgunean (<http://domeinuak.eus/en/araudia>) eskuragarri dagoen eta hemen erreferentziaz sartutako politika da; horrek .eus domeinuzen erregistroa arautzen du.
- d. «**ICANN**» Internet Corporation for Assigned Names and Numbers izenaren laburdura da.
- e. «**Premium izena**» prima baten ordezkari erregistratzeko eskuragarri jarri daitekeen edo, hasiera batean, erregistro-operadoreak enkantera ateratzeko edo geroago saltzeko Premium izenen zerrendan adierazitako .eus domeinu-izena da.
- f. «**Agintari publikoak**» nazioarteko, herrialdeko, eskualdeko, tokiko eta udaleko agintariak eta bestelako gobernu-sailak dira; bai eta euskara hizkuntza autoktonotzat duten eremuetan Euskadiko, Nafarroako, Espainiako eta Frantziako legeriaren mendeko erakunde publikoak edo erakunde egokiak ere (hala nola, agentziak, partzuergoak, batzordeak eta beste administrazio-sail batzuk).
- g. «**Erregistrantea**», «**zu**» eta «**zure**» .eus domeinu-izena akreditatutako erregistroan erregistratzea eskatu duen edo erregistratu nahi duen gizabanakoari edo erakundeari dagozkio.
- h. «**Erregistro-operadorea**», «**gu**» eta «**gure**» PuntuEUS Fundazioari dagozkio, .eus LMD zuzentzeaz arduratzen den erakunde gisa, zuzenean edo baimendutako eragilearen bidez jarduten duen kontuan izan gabe (Adib.: CORE Elkartea).
- i. «**Erreserbatutako izena**» erreserbatutako izenen zerrendan adierazitako eta erregistratu ezin den .eus domeinu-izena da.
- j. «**LMD**» akronimoak lehen mailako domeinua esan nahi du.

### 3. Baldintza orokorrak eta abiaraztearen laburpena

3.1 Abiarazte-aldian .eus domeinu-izena erregistratzeko, eskaerak honako hauek bete behar ditu:



- 1) abiarazte-kategoria bakoitzerako, abiarazte-politikak azaldutako hautagarritasun-baldintza zehatzak, bai eta
- 2) Hemen, erreferentziaz sartutako .eus erregistro-politikan azaldutako hautagarritasun- eta erabilera-baldintza orokorrak. Zehazki, .eus domeinu-izen bat erregistratzeko eta berritzeko, erregistro-politikek eskatzen dute .eus komunitatearekiko lotura duen gizabanakoa edo lege-erakundea izatea erregistratzeko garaian eta aurrerantzean.

.eus lehen mailako domeinuaren mendeko erregistroak bi baldintza hauek betetzen dituztenei mugatuta daude:

- a) Euskal hizkuntza- eta kultura-komunitateko onusteko kidea izatea Interneten. Komunitatea osatzen dute online komunikazioetarako euskara erabiltzen duten (edo erabiltzeko konpromisoa hartzen duten) edota euskal kulturaren alderdiak online sustatzen dituzten edota online komunikazioak eta zerbitzuak komunitate horri zehazki zuzendu nahi dizkieten horiek.
- b) Erregistrantearen ekintzek euskal hizkuntza- eta kultura-komunitatean eta erregistratutako domeinu-izenaren erabilerak honelakoak izan behar dute:
  - (i) oro har legezko zat onartutakoak;
  - (ii) euskal hizkuntza- eta kultura-komunitatearen kausarentzako eta balioetarako onuragarriak;
  - (iii) erregistratutako domeinu-izenaren rolaekin eta garrantziarekin bat datozenak; eta
  - (iv) fede onekoak, erregistratzeko garaian eta aurrerantzean.

Erregistranteek erregistratutako domeinu-izenari eman nahi dioten erabilera adierazi behar dute. Erabileraren adierazpen faltsua fede txarraren adierazpena da, eta domeinu-izena eteteko oinarria izan daiteke.

Erregistratzerakoan eta .eus domeinu-izenaren bizitza osoan, adierazitako eremu guztiak betetzen dituzula frogatzeko gai izan behar duzu. Komunitatearekiko lotura ondoko balioztapenaren mende egongo da, LMDren oinarria eratzen duten irizpide beretan oinarritutako onarpen-programa zabalaren bitartez.

Balioztapenaren sendotasuna domeinuaren azpian dagoen izenaren ildoan egongo da, kontuan izanda ohiko erabiltzaileek zer ulertuko luketen domeinu-izenaren testuinguruan.

.eus erregistro-politika orokorra abiarazte-politika honetan zehazki azaldu ez diren erregistroaren alderdi guztiei aplikatuko zaie.

3.2 Lehenago, 3.1 atalean, deskribatutako erregistroarako hautagarritasun-baldintzen salbuespen gisa, .eus komunitatean oinarritutako erregistro-politikak betetzen ez dituzten TMCHk balioztatutako eskaerek hirugarren eskatzaile potentzialari erregistroa blokeatuko dion babes-erregistroa hautatu dezakete, azpiko 4.1.3 atalean azaltzen den bezala, domeinua DNSn aktibatu gabe.

3.3 .eus LMDren Abiarazte Fasea 2014ko irailaren 16an hasiko da, 13:00etan (UTC) eta 2014ko azaroaren 18an amaituko da, 13:00etan (UTC), interes publikoko erregistro aldi mugatua (EAM) izan ezik, azaroaren 25ean amaituko baita, 13:00etan (UTC\*). Froga-aldiak jarraituko dio, abenduaren 3an (13:00etan UTC) eskuragarritasun orokorreko aldia hasi aurretik. 71 egun naturaleko aldi horretan, sei eskaera-kategoria onartuko dira: bost kategoria aurretiazko eskubideak dituzten erregistranteentzat eta beste kategoria bat aurretiazko eskubiderik ez dutenentzat (*Erregistro librea*). **6 kategorietarako eskaerak aldi berean onartuko dira** eta **abiarazte-aldiaren epearen amaieran esleituko** dira, kategoria bakoitzaren **lehentasun-estatusaren** hierarkiaren arabera. Horrela, kategoria bakoitza erabat esleituko da (hau da, onartu, baztertu edo gatazkaren ebazpenera bidaliko da), hurrengo kategoriako beste edozer izen esleitu aurretik. Erregistro-operadoreak banaka eta **sakonki balioztatuko** du lehentasun-kexa bakoitza. Norberaren adierazpena ez da nahikoa izango. Kategoriak honako hauek dira, lehentasun estatusaren arabera (lehentasun handienetik txikienera):

Kategoria / Lehentasuna	*Luzera	Laburpena
1. Sunrise aldia	2014ko irailaren 16an, 13:00etan (UTC) 2014ko azaroaren 18an, 13:00etan (UTC)	<b>TMCHk balioztatutako marketarako</b> Sunrisearen mugaeguna.
2. Babes-erregistroak	2014ko irailaren 16an, 13:00etan (UTC) 2014ko azaroaren 18an, 13:00etan (UTC)	.eus hautagarritasun-baldintzak betetzen ez dituzten TMCHk balioztatutako markak
3. Interes Publikoko EAM	2014ko irailaren 16an, 13:00etan (UTC) 2014ko azaroaren 25ean, 13:00etan (UTC)	Erregistro aldi mugatua honako hauek erregistratzen uzteko, euskal komunitatearen interes publikoa sustatzeko bokazio zehatza duten erakunde legalei, bai eta euskara hizkuntza autoktonotzat duten eremuetan eskumenak dituzten herri-administrazioei ere:  (i) euren <b>izenak</b> (aldaketa argiak edota horren laburdurak barne),

		<p>(ii) euren <b>online zerbitzuak</b>,</p> <p>(iii) haiek beste LMDtan erregistratutako eta modu eraginkorrean erabilitako <b>domeinu-izenak</b>, eta</p> <p>(iv) euren <b>marka erregistratuak</b>.</p>
4. Tokiko marken EAM	<p>2014ko irailaren 16an, 13:00etan (UTC)</p> <p>2014ko azaroaren 18an, 13:00etan (UTC)</p>	<p>Erregistro aldi mugatua, lege-erakundeei honako haiek erregistratzen uzteko:</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>- Euskara hizkuntza autoktonotzat duten eremuetan eragina duten markak, TMCHk balioztatu ez dituenak:</li> </ul> <p>(adib.: Espainiako edo Frantziako markak, EBko Erkidegoko markak eta Espainian edo Frantzian eragina duten Nazioarteko WIPO markak) eta</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>- Adierazpen geografikoak:</li> </ul> <p>Nazioarteko, Espainiako edo Frantziako legeriak errekonozitutakoak.</p>
5. Aurretiazko edukiaren EAM	<p>2014ko irailaren 16an, 13:00etan (UTC)</p> <p>2014ko azaroaren 18an, 13:00etan (UTC)</p>	<p>Erregistro-aldi mugatua, euskarazko aurretiazko online komunikazioak (adib.: webgunearen, posta-zerrendaren, blogaren eta abarren bidez) frogatzen dituzten lege-erakundeei honako haiek erregistratzen uzteko:</p> <p>(i) euren <b>izen</b> ofizialak (aldaketa argiak edota horren laburdurak barne); edota</p> <p>(ii) haiek beste LMDtan erregistratutako eta modu eraginkorrean erabilitako <b>domeinu-izenak</b>.</p> <p>Kategoria honen barnean, eskatzaile batek baino gehiagok izen bera eskatuz gero, irabazlea enkantean erabakiko da.</p>
6. Erregistro librea	<p>2014ko irailaren 16an, 13:00etan (UTC)</p> <p>2014ko azaroaren 18an, 13:00etan (UTC)</p>	<p>Epe horretan, interesa duen edozer alderdik 1. eta 5. arteko kategorietan esleitu ez diren edo erregistro-operadoreak erreserbatu ez dituen .eus domeinu-izenak lortzeko eskaera bat edo gehiago bidaltzeko aukera izango du. Katategoria honen barnean, eskatzaile batek baino gehiagok izen bera eskatuz gero, irabazlea enkantean erabakiko da.</p>
Eskuragarritasun orokorra	2014ko abenduaren 3an, 13:00etan	Abiarazte-aldien ondoren hasitako erregistro-



	(UTC)	epe orokorrean, edozer pertsonak edo erakundek erregistratu ahalko ditu eskuragarri dauden .eus domeinu-izenak, eskaera-ordenan, .eus erregistro politika orokorrari jarraiki.
Marka erreklamazioen jakinarazpen zerbitzua	EAMtan, erregistro librean eta, gutxienez, eskuragarritasun orokorraren lehenengo 90 egunetan.	Aldi horretan, akreditatutako erregistradoreak erregistratutako marka batekin bat datorren eta Marken Konpentsazio Ganberak (TMCH) egiaztatu duen domeinu-izen bat erregistratzen saiatzen diren balizko domeinu-izenen erregistrante guztiei jakinarazpena egin behar die («erreklamazio jakinarazpena») eta Marken Konpentsazio Ganberak marken titularrei erregistratutako izenak jakinaraziko dizkie («NORNAk»).

\* GARRANTZITSUA: Erregistro-operadoreak aurreko edozer abiarazte-kategorien programa berrikusteko edo zabaltzeko eskubidea gordetzen du, bere nahierara. Nolanahi ere, Sunrise aldiak gutxienez 60 eguneko iraupena izango du, eta marken erreklamazio jakinarazpen zerbitzua indarrean egongo da erregistro libreak iraun bitartean eta eskuragarritasun orokorraren lehen 90 egunetan.

#### 4. 1. Lehenengo Kategoria: Itxiera-dataren Sunrise aldia

##### 4.1 Sunrise aldiko Hautagarritasunaren eta Izen Hautaketaren Baldintzak

Kategoria hau TMCHk erregistratutako marketarako da: Marken Konpentsazio Ganberak egiaztatutako erregistratutako jabeak, baimendunak edo esleipendunak («TMCH»);

Baldintza hauek lehenago, 3.1 atalean zehaztutako .eus komunitatearekiko loturari gehitzen zaizkio, bai eta .eus erregistro guztiei aplikatzen zaizkien bestelako baldintza orokor guztiei ere, .eus Erregistro Politikan azaldu bezala. Ez da bestelako baldintzarik (adib.: marka-klasea) aplikatuko.

##### 4.2 Balioztapena

TMCHk erregistratutako markak: Erregistro Operadoreak eskatutako domeinu-izena erregistratutako du, baldintza hauek betetzen diren heinean:



- a. Domeinu-izenak .eus Erregistro Politikan azaldutako hautagarritasun-irizpide orokorrak betetzen ditu;
- b. Domeinu-izena zehazki dator bat Marken Konpentsazio Ganberak Sunrise Zerbitzuetarako balioztatutako markarekin, eskatzaileak eskatuz gero;
- c. Baliozko SMD fitxategia, eskaera-garaian;
- d. eskaera bat dator SMD fitxategian dagoen etiketarekin;
- e. eta domeinu-izena eskuragarri dago.

Ez da bestelako baldintzarik (adib.: marka-jurisdikzioa, klasea edo tokiko presentzia) aplikatuko.

### 4.3 Iraupena

Sunrise aldiak hirurogeita lau (64) egun naturaleko iraupena izango du, eta gainontzeko Abiarazte Faseen aldi berean gertatuko da.

### 4.4 Gatazken konponketa

Hurrengo prozesua aplikatuko da:

1. Lehiakideen arteko akordioa (eskaera ateratzea eta dirua itzultzea);
2. Akordiorik izan ezean, bitartekotza-arbitrajea edo ausazko hautaketa eskainiko zaie alderdiei (lehiakide guztiak ados egonez gero); eta
3. Enkantea, berdinketa hausteko azken baliabide gisa, aurretik aipatutako mekanismoekin adostasunik lortu ezean.

### 4.5 Sunrise aldiko gatazkek konpontzeko politika

TMCHren Sunrise aldiaren kategoriaren mendeko esleipenak eta ukatzeak erregistro-operadorearen webgunean eskuragarri dagoen **Sunrise aldiko gatazkek konpontzeko politikaren** («SDRP») bidez eztabaidatu ahal izango da.

## 5. 2. Lehentasuneko Kategoria: Babes Erregistroak

### 5.1 Hautagarritasunaren eta Izen Hautaketaren Baldintzak





.eus komunitatean oinarritutako erregistro-politikak betetzen ez dituzten TMCHk balioztatutako eskaerek Babes Erregistroa hauta dezakete. Babes-erregistroak hirugarren eskatzaile potentzialak lehentasun txikieneko faseetan domeinu-izena erregistratzeko aukera blokeatuko du. Babes-erregistroek ez dute domeinua DNSan aktibatzea onartuko. Eskatzaile ezberdinen hainbat babes-erregistro onartu daitezke.

## 5.2 Lehentasuna

Kategoria honetan hauta daitezkeen eskaerek 3., 4. eta 5. Kategorien zein Erregistro Librearen gaineko Lehentasuna izango dute, domeinu-izen beraren gainean.

## 5.3 Iraupena

Sunrise aldiak hirurogeita lau (64) egun naturaleko iraupena izango du, eta gainontzeko Abiarazte Faseen aldi berean gertatuko da.

## 6. 3. Lehentasuneko Kategoria: Interes Publikoko EAM

Kategoria hau euskal hizkuntza edota kultura sustatzeko eskuduntza zehatza duten lege-erakundeetarako da. .eus Komunitatearen Interes Publikoa sustatzeko eskuduntza zehatz hori frogatzen duten eskatzaileek soilik (euskara hizkuntza autoktonoa den eremuetan eskumena duten Agintari Publiko esanguratsuak barne) erregistratu ahal izango dituzte izenak, beherago azaldutako Hautagarritasun eta Izen Hautaketa baldintzen arabera.

.eus Komunitatearen Interes Publikoa sustatzeko eskuduntza zehatza dutela jotako zenbait erakunde aipatzen dituen publikoki eskuragarri dauden akreditatutako baliabideen zerrenda atxiki zaio, 1. Eranskin gisa, Abiarazte Politika honi.

Kategoria honen arauetan kontuan hartzeko edozer eskatzaile potentzialak honako baldintza hauetakoren bat bete beharko du:

- 1) Dagozkien agintaritzek mantentzen dituzten erregistro publiko eta pribatu hauetan egotea; edo
- 2) Euskal hizkuntza edota kultura sustatzeko eskuduntza zehatza frogatzea, eskaera-prozesuan, erregistroak eskuduntza hori egiaztatzeko online baliabideen erreferentziaren aipamena adierazita.

## 6.1 Hautagarritasunaren eta izen-hautaketaren baldintzak

Euskal hizkuntza edota kultura sustatzeko bokazio zehatza duten eskatzaileak (erakunde legalak zein gizabanakoak), bai eta euskara hizkuntza autoktonotzat duten eremuetan eskumenak dituzten herri-administrazioak ere. Hemen, «**agintari publikoak**» nazioarteko, herrialdeko, eskualdeko, tokiko eta udal agintariak eta bestelako gobernu-sailak dira; bai eta Espainiako, Frantziako, Euskadiko edo Nafarroako legeriaren mendeko erakunde publikoak edo erakunde egokiak ere (hala nola, agentziak, partzuergoak, batzordeak eta beste administrazio-sail batzuk).

Kategoria honetarako hautagarriak diren erakundeek honako hauek erregistratu ditzakete:

- (i) euren **izenak** (aldaketa argiak edota horren laburdurak barne),
- (ii) euren **online zerbitzuak**,
- (iii) haiek beste LMDtan erregistratutako eta modu eraginkorrean erabilitako **domeinu-izenak**, eta
- (iv) euren **marka erregistratuak**.

2.1 f) atalean aipatutako aginpide publikoek hurrengo izenak ere erregistra ditzakete:

- (i) Zerbitzu publikoen izenak, baldin eta 2.1 f) atalean aipatutako aginpide publikoek haien gaineko erantzukizun zehatzak badituzte. Horiek honako zerbitzuak hartuko lituzkete barne, gutxienez:
  - ordena eta segurtasun publikoak
  - gai publikoak eta harreman instituzionalak
  - osasun publikoa
  - zergak, garapen eta sustapen ekonomikoak
  - zerbitzu publikoak
  - garraioa
  - hiri-plangintza eta ingurumen-babesa
  - kultura eta hezkuntza
  - herritarren parte-hartzea
  - turismoa; edo
- (ii) Edozer administrazio-mailako izen geografikoak (adib.: probintziak, hiriak, barrutiak, auzoak, kaleak...), tokiko leku ezagunen izenak eta bestelako izen esanguratsuak eta ikonikoak, baita horien aldaketa argiak eta laburdurak, baldin eta 2.1 f) atalean aipatutako aginpide publikoek horietako aginpide badira, tokiko legearen arabera.



Erregistro-operadoreak eskatutako domeinu-izena erregistratuko du, baldin eta domeinu-izenak ondoko baldintza hauek betetzen baditu:

- (i). .eus erregistro-politika orokorrean azaldutako hautagarritasun-irizpide orokorrak;
- (ii) 3.1 xedapenean azaldutako hautagarritasun eta izen-hautaketa baldintza zehatzak; eta
- (iii) eskuragarritasuna.

## **6.2 Balioztapena**

Erregistroa arduratuko da balioztapen-prozesuaz. Katetoria honetan hautagai gisa egokia dela adierazten duen eskatzailea egiaztatuko dira erregistro-operadoreak 1. eranskin gisa emandako publikoki eskuragarri dauden baliabideen zerrendan edo eskatzaileak eskaera-prozesuan emandako baliabideetan, eta erregistroak eskaera onargarritzat joko du, baldin eta 3.1 eta 6.1 ataletan ezarritako irizpideak betetzen baditu eta, 4. atalari jarraiki, ez badator bat Sunrise aldiko beste eskaera baliagarriekin.

## **6.3 Iraupena**

Interes publikoko EAMk hirurogeita hamaika (71) egun natural iraungo ditu, eta gainontzeko abiarazte-aldiekin bat etorriko da.

## **6.4 Gatazken konponketa**

Kategoria honetan, domeinu bererako eskaera bat baino gehiago badago, honela konponduko da gatazka:

I). Honako domeinu-izen hauetarako:

a) irismen geografikoa duten domeinu-izenak: euskara hizkuntza autoktonotzat duten eremuetan, edozer administrazio-erakundeari edo toki ezagun esanguratsuei lotutako domeinu-izenak aldaketa argiak eta laburdurak barne.



b) zerbitzu publikoari lotutako domeinu-izenak: zerbitzu publikoari lotuta herri-administrazio batek edo horrekin kidetutako erakunde pribatuak gauzatutako jardueri lotutako domeinu-izenak.

Irismena eta eskuduntza eztabaidatutako domeinu-izenaren irismen geografikoari edo zerbitzu publikoari modu zuzenenean lotuta duen herri-administrazioari esleituko zaio domeinu-izenaren erregistroa

II). I) aplikagarria ez bada, herri-administrazio egokiena zalantzarik gabe erabakitzeko ezintasunaren ondorioz, eta aurreko bi xedapenetan sartzen ez den beste edozer domeinu-izenen kasuan, honako prozesu hau aplikatuko da:

Izen bererako eskaera bat baino gehiago badago, honako gatazka-konponketa prozesuak aplikatuko dira:

4. Lehiakideen arteko akordioa (eskaera ateratzea eta dirua itzultzea);
5. Akordiorik izan ezean, bitartekotza-arbitrajea edo ausazko hautaketa eskainiko zaie alderdiei (lehiakide guztiak ados egonez gero); eta
6. Enkantea, berdinketa hausteko azken baliabide gisa, aurretik aipatutako mekanismoekin adostasunik lortu ezean.

## **6.5 Lehenasuna**

Kategoria honetan hauta daitezkeen eskaerek lehenasuna izango dute 4. eta 5. Lehenasuneko zein erregistro libreko eskaeren aurrean.

## **6.6 Kategoria honetan esleitutako edo ukatutako domeinu-izenen gatazkak**

Kategoria honetako domeinu-izenen esleipenak eta ukapenak erregistro-operadorearen webgunean eskuragarri dagoen erregistro politikak ezarritako hautagarritasun eta birplanteatze gatazkak konpontzeko politikaren bidez eztabaidatu daitezke.

## **7. 4. lehenasuneko kategoria: Tokiko marken erregistro aldi mugatua**

### **7.1 Hautagarritasunaren eta izen-hautaketaren baldintzak**

Kategoria hau euskara hizkuntza autoktonotzat duten eremuetan eragiten duten, 2012ko ekainaren 13an edo lehenago eskatutako, 2013ko abenduaren 12an edo lehenago esleitutako eta domeinu-izenaren erregistro-garaian indarrean dauden



TMCHk balioztatu ez dituen marketarako da. ALP honetan, «**tokiko markak**» hurrengo 4 marka motak hartzen dituzte barne:

- (i) **Espainiako markak**, Espainiako marka-bulegoan erregistratutakoak (Patenteen eta Marken Espainiako Bulegoa, «**OEPM** gaztelaniazko sigletan» <http://www.oepm.es/gl/index.html>);
- (ii) **Frantziako markak**, Frantziako marka-bulegoan erregistratutakoak (Jabetza Industrialaren Erakunde Nazionala, «**INPI** frantsesezko sigletan» <http://www.inpi.fr/fr/l-inpi.html>);
- (iii) **EBko Erkidegoko Markak**, Barne Merkatua Bateratzeko Bulegoan erregistratutakoak, «**OHIM** ingelesezko sigletan» <https://oami.europa.eu/ohimportal/en/trade-marks>, eta
- (iv) **Espanian eta Frantzian aukeratzeko duen eta indarrean dagoen WIPO nazioarteko markak**, Madrilgo sistemaren arabera (<http://www.wipo.int/romarin>).

3.1 atalean azaldu bezala, .eus erregistro guztietarako aplikagarriak diren komunitatearekiko lotura eta beste edozer baldintza orokor aplikatzen dira. Ez da bestelako baldintzarik (adib.: marka klasea) aplikatuko.

## 7.2 Balioztapena

Kategoria honetako eskaerak banaka eta sakonki balioztatuko ditu erregistro-operadoreak edo CORE elkarteak, erregistro-operadorearen eragile den heinean.

### 7.2.1 Marken balioztapena

- (i) *Erregistro-datuen eta estatusaren egiaztapena online datu-base publikoetan:*

Tokiko markak banaka egiaztatuko dira, online eskuragarri dauden hiru bilaketa-tresnaren laguntzarekin:

- **OEPM datu-basea**, hemen eskuragarri:  
[http://www.oepm.es/gl/signos\\_distintivos/index.html](http://www.oepm.es/gl/signos_distintivos/index.html).

Bilaketa-tresna horrek OEPMren marken datu-base ofizialerako sarbidea ematen du; horrek programa honetan hautagarriak diren tokiko marken hiru motak hartzen ditu barne (adib.: Espainiako

markak, EBko erkidegoko markak eta Espainiarako nazioarteko markak);

- **INPI datu-basea**, hemen eskuragarri: <http://bases-marques.inpi.fr>.

Bilaketa-tresna horrek INPIren marken datu-base ofizialerako sarbidea ematen du; horrek programa honetan hautagarriak diren tokiko marken hiru motak hartzen ditu barne (adib.: Frantziako markak, EBko erkidegoko markak eta Frantziarako nazioarteko markak);

### 7.2.2 Adierazpen geografikoen balioztapena

Adierazpen geografikoak banaka egiaztatuko dira *DOOR datu-basearen*, laguntzarekin, hemen eskuragarri:

<http://ec.europa.eu/agriculture/quality/door/list.html>

Europako Batzordeak mantentzen duen eta herrialdeka bila daitezkeen (eta, ondorioz, euskara hizkuntza autoktonotzat duten eremuetarako egokiak direnak barne) EBko araudien arabera sortutako PDO, PGI eta TSG guztiak dituen datu-base ofizialean, eta Europako, Espainiako, Euskadiko edo euskara hizkuntza autoktonotzat duten beste aginpideek adierazitako beste edozer iturri esanguratsuk mantentzen dituztenak.

### 7.3 Iraupena

Tokiko marken EAMk hirurogeita lau (64) egun naturaleko iraupena izango du, eta gainontzeko abiarazte-aldien aldi berean gertatuko da.

### 7.4 Gatazken konponketa

Hurrengo prozesua aplikatuko da:

1. Lehiakideen arteko akordioa (eskaera ateratzea eta dirua itzultzea);
2. Akordiorik izan ezean, bitartekotza-arbitrajea edo ausazko hautaketa eskainiko zaie alderdiei (lehiakide guztiak ados egonez gero); eta
3. Enkantea, berdinketa hausteko azken baliabide gisa, aurretik aipatutako mekanismoekin adostasunik lortu ezean.



### 7.5 Lehenetasuna

Kategoria honetan hauta daitezkeen eskaerek lehenetasuna izango dute 5. lehenetasuneko zein erregistro libreko eskaeren aurrean.

### 7.6 Kategoria honetan esleitutako edo ukatutako domeinu-izenen gatazkak

Kategoria honetako domeinu-izenen esleipenak eta ukapenak erregistro-operadorearen webgunean eskuragarri dagoen erregistro politikak ezarritako hautagarritasun eta birplanteatze gatazkak konpontzeko politikaren bidez eztabaidatu daitezke.

## 8. 3. lehenetasuneko kategoria: aurretiazko edukiaren erregistro aldi mugatua

### 8.1 Hautagarritasunaren eta izen-hautaketaren baldintzak

Kategoria hau euskarazko aurretiazko online komunikazioak (adib.: webgunearen, posta-zerrendaren, blogaren eta abarren bidez) frogatzen dituzten lege-erakundeei honako hauek erregistratzen uzteko da:

- (i) euren **izen** ofizialak (aldaketa argiak edota horren laburdurak barne); edota
- (ii) haiek beste LMDtan erregistratutako eta modu eraginkorrean erabilitako **domeinu-izenak**.

Erregistro-operadoreak eskatutako domeinu-izena erregistratuko du, baldin eta domeinu-izenak baldintza hauek betetzen baditu:

- (i) .eus erregistro politika orokorrean azaldutako hautagarritasun-irizpide orokorrak,
- (ii) 3.1 xedapenean azaldutako hautagarritasun eta izen-hautaketa baldintza zehatzak; eta
- (iii) eskuragarritasuna

### 8.2 Balioztapena

Balioztapen-prozesuaz erregistro-operadorea arduratuko da edo CORE elkarte, Erregistro Operadorearen eragile den heinean. Kategoria honetan kontuan hartzeko hautagarritasuna adierazten duen edozer eskatzailek .eus domeinu-izena eskatu aurreko euskarazko edukiaren existentzia egiaztatzen duen eskatzaileak erregistratutako domeinu-izenaren url-a eman beharko du.



### **8.3 Iraupena**

Bestelako eskubideen EAMk hirurogeita lau (64) egun naturaleko iraupena izango du, eta gainontzeko abiarazte-aldien aldi berean gertatuko da.

### **8.4 Gatazken konponketa**

Hurrengo prozesua aplikatuko da:

1. Lehiakideen arteko akordioa (eskaera ateratzea eta dirua itzultzea);
2. Akordiorik izan ezean, bitartekotza-arbitrajea edo ausazko hautaketa eskainiko zaie alderdiei (lehiakide guztiak ados egonez gero); eta
3. Enkantea, berdinketa hausteko azken baliabide gisa, aurretik aipatutako mekanismoekin adostasunik lortu ezean.

### **8.5 Lehentasuna**

Kategoria honetan hauta daitezkeen eskaerek lehentasuna izango dute erregistro libreko eskaeren aurrean.

### **8.6 Kategoria honetan esleitutako edo ukatutako domeinu-izenen gatazkak**

Kategoria honetako domeinu-izenen esleipenak eta ukapenak erregistro-operadorearen webgunean eskuragarri dagoen erregistro politikak ezarritako hautagarritasun eta birplanteatze gatazkak konpontzeko politikaren bidez eztabaidatu daitezke.

## **9. 4. kategoria: Erregistro librea (lehentasun-eskubiderik gabeko izenak)**

### **9.1 Hautagarritasuna eta izen-hautaketa**

Erregistro librean, interesa duen edozer alderdik edozein domeinu-izenerako eskaera bat edo gehiago aurkeztu ahal izango du, baldin eta (i) .eus erregistro politika orokorrean azaldutako hautagarritasun-irizpide orokorrak betetzen baditu eta, (ii) beste abiarazte kategoria batzuetan, erregistro operadoreak erreserbatu, erregistratu edo eman ez badu.

### **9.2 Iraupena**





Tokiko marken EAMk hirurogeita lau (64) egun naturaleko iraupena izango du, eta gainontzeko abiarazte-aldien aldi berean gertatuko da.

### **9.3 Gatazken konponketa**

Hurrengo prozesua aplikatuko da:

1. Lehiakideen arteko akordioa (eskaera ateratzea eta dirua itzultzea);
2. Akordiorik izan ezean, bitartekotza-arbitrajea edo ausazko hautaketa eskainiko zaie alderdiei (lehiakide guztiak ados egonez gero); eta
3. Enkantea, berdinketa hausteko azken baliabide gisa, aurretik aipatutako mekanismoekin adostasunik lortu ezean.

### **9.4 Lehentasuna**

Kategoria honetan hauta daitezkeen eskaerek lehentasuna izango dute eskuragarritasun orokorreko aldiari jasotako eskaeren aurrean.

### **9.5 Kategoria honetan esleitutako edo ukatutako domeinu-izenen gatazkak**

Kategoria honetako domeinu-izenen esleipenak eta ukapenak erregistro-operadorearen webgunean eskuragarri dagoen erregistro politikak ezarritako hautagarritasun eta birplanteatze gatazkak konpontzeko politikaren bidez eztabaidatu daitezke.

## **10. Hautagarritasunaren eta izen-hautaketaren baldintzak betearaztea**

Erregistro-operadoreak edonoiz ukatu, baliogabetu edo ezeztatu ahal izango du edozer eskaera edo domeinu-izenaren ondoriozko erregistroa, eskatzaileak aurreko kategoria bakoitzerako eskatutako hautagarritasun edota izen-hautaketa baldintzaren bat betetzen ez duela badirudi, eskatzaileak edo erregistranteak aipatutako ukapenagatik, baliogabetzeagatik edo ezeztapenagatik diru-itzulketarako edo konpentsaziorako eskubiderik izan gabe.



# I. eranskina

---

## Interes publikoko ALPrako eskatzaile hautagarrien direktorio publikoak

1. Euskal hizkuntzaren eta kulturaren sustapena jarduera nagusitzat duten elkarteak.

**Euskadi:**

[http://www.jusap.ejgv.euskadi.net/r47-searchre/es?r01kQry=tC:euskadi;tF:registros\\_administrativos;tT:asociacion;mA:documentLanguage.EQ.es;o:documentName.ASC;p:Inter](http://www.jusap.ejgv.euskadi.net/r47-searchre/es?r01kQry=tC:euskadi;tF:registros_administrativos;tT:asociacion;mA:documentLanguage.EQ.es;o:documentName.ASC;p:Inter)

[http://www.jusap.ejgv.euskadi.net/r47-searchre/es?r01kQry=tC:euskadi;tF:registros\\_administrativos;tT:asociacion;mA:documentLanguage.EQ.es;o:documentName.ASC;p:Inter](http://www.jusap.ejgv.euskadi.net/r47-searchre/es?r01kQry=tC:euskadi;tF:registros_administrativos;tT:asociacion;mA:documentLanguage.EQ.es;o:documentName.ASC;p:Inter)



### Frantzia:

<http://www.eke.org/eu/kultur-eragileak/partaideak/cat>

### Nafarroa:

[http://www.navarra.es/home\\_es/Gobierno+de+Navarra/Organigrama/Los+departamentos/Presidencia+justicia+e+interior/Organigrama/El+departamento/Direccion+General+de+Presidencia/Registro+Asociaciones.htm](http://www.navarra.es/home_es/Gobierno+de+Navarra/Organigrama/Los+departamentos/Presidencia+justicia+e+interior/Organigrama/El+departamento/Direccion+General+de+Presidencia/Registro+Asociaciones.htm)

### Euskadiko irabazi asmorik gabeko fundazioen erregistroa:

[http://gaindegia.org/eu/eh-gida/bilatzaille-aurreratua?title\\_field\\_value=&field\\_mota\\_tid=98&field\\_herri\\_value=&field\\_herrialdea\\_value=](http://gaindegia.org/eu/eh-gida/bilatzaille-aurreratua?title_field_value=&field_mota_tid=98&field_herri_value=&field_herrialdea_value=)

### Nazioarteko euskal-elkarteak:

[http://www.euskaletxeak.net/index.php?option=com\\_content&task=view&id=140&Itemid=191](http://www.euskaletxeak.net/index.php?option=com_content&task=view&id=140&Itemid=191)

## 2. Kultura-industriak (musika, folklorea, museoak, kirolak)

### Nafarroako folklorea

<http://www.navarra.net/arteycultura/index.htm>

<http://www.navarra.net/arteycultura/musica-navarra.htm>

<http://www.navarra.net/arteycultura/costumbres.htm>

### Museoak

#### Euskadiko museoak:

[http://www.kultura.ejgv.euskadi.net/r46-2516x/es?r01kQry=tC%3Aeuskadi%3BtF%3Aenlaces%3BtT%3Aenlace%3Bm%3AdocumentLanguage.EQ.es%3BcA%3Ar01e0000ff26d4629fa470b8159f8767b40e9054%3Bp%3AInter\\_portal%2CInter%3B](http://www.kultura.ejgv.euskadi.net/r46-2516x/es?r01kQry=tC%3Aeuskadi%3BtF%3Aenlaces%3BtT%3Aenlace%3Bm%3AdocumentLanguage.EQ.es%3BcA%3Ar01e0000ff26d4629fa470b8159f8767b40e9054%3Bp%3AInter_portal%2CInter%3B)  
<http://www.kultura.ejgv.euskadi.net/r46-2516x/es?r01kQry=tC%3Aeuskadi%3BtF%3Aenlaces%3BtT%3Aenlace%3Bm%3AdocumentLa>



[nguage.EQ.es%3BcA%3Ar01e0000ff26d4629fa470b8159f8767b40e9054%3Bp%3AInter\\_portal%2Cinter%3B](http://www.navarra.es/inter_portal%2Cinter%3B)

**Nafarroako museoak:**

[https://www.navarra.es/home\\_es/Temas/Turismo+ocio+y+cultura/Museos/museos.htm](https://www.navarra.es/home_es/Temas/Turismo+ocio+y+cultura/Museos/museos.htm)

### 3. Kirol-erakundeak

**Euskadiko kirol-federazioak:**

[http://euskalkirola.com/?page\\_id=297&lang=eu](http://euskalkirola.com/?page_id=297&lang=eu)

[http://euskalkirola.com/?page\\_id=297&lang=eu](http://euskalkirola.com/?page_id=297&lang=eu)

**Nafarroako kirol-taldeak eta federazioak:**

<http://www.navarra.net/asociaciones-navarra/deporte-navarra.htm>

### 4. Sektore akademikoa:

**Euskadiko unibertsitateak:**

[http://gaindegia.org/eu/eh-gida/bilatzaile-aurreratua?title\\_field\\_value=&field\\_mota\\_tid=162&field\\_herri\\_value=&field\\_herria\\_idea\\_value=](http://gaindegia.org/eu/eh-gida/bilatzaile-aurreratua?title_field_value=&field_mota_tid=162&field_herri_value=&field_herria_idea_value=)

**Nafarroako hezkuntza-sarea:**

<http://www.navarra.net/educa/index.html>

**Euskadiko hezkuntza-sarea:**

<http://www.hezkuntza.ejgv.euskadi.net/r43-5532/es/>

**Euskadiko ikastetxeak:**

[http://gaindegia.org/eu/eh-gida/bilatzaile-aurreratua?title\\_field\\_value=&field\\_mota\\_tid=165&field\\_herri\\_value=&field\\_herria\\_idea\\_value=](http://gaindegia.org/eu/eh-gida/bilatzaile-aurreratua?title_field_value=&field_mota_tid=165&field_herri_value=&field_herria_idea_value=)

### 5. Kultura industriak:

**Euskarazko argitaletxeak:**



<http://www.editoreak.com/bazkideak>

**Euskal idazleen elkarteak:**

[www.idazleak.eus](http://www.idazleak.eus)

**Euskal PEN:**

<http://www.euskalpen.org/>

**Internet elkarteak:**

<http://www.interneteuskadi.org/>

## **6. Komunikabideak**

**Euskal komunikabideen elkarteak:**

<http://www.hekimen.eus/>

**Nafarroako komunikabideak:**

<http://www.navarra.net/prensa/index.htm>

**Euskadiko komunikabideak:**

[http://gaindegia.org/eu/eh-gida/bilatzaile-aurreratua?title\\_field\\_value=&field\\_mota\\_tid=94&field\\_herri\\_value=&field\\_herrialdea\\_value=](http://gaindegia.org/eu/eh-gida/bilatzaile-aurreratua?title_field_value=&field_mota_tid=94&field_herri_value=&field_herrialdea_value=)

## **7. Herri administrazioak**

[http://gaindegia.org/eu/eh-gida/bilatzaile-aurreratua?title\\_field\\_value=&field\\_mota\\_tid=90&field\\_herri\\_value=&field\\_herrialdea\\_value=](http://gaindegia.org/eu/eh-gida/bilatzaile-aurreratua?title_field_value=&field_mota_tid=90&field_herri_value=&field_herrialdea_value=)

<http://udalbiltza.info/eu/euskal-herriari-begira/udalerriak>

<http://www.euskadi.net/r33->

[2288/es/contenidos/informacion/mapa\\_web\\_euskadi/es\\_6313/sitio\\_web\\_euskadi.html](http://www.euskadi.net/r33-2288/es/contenidos/informacion/mapa_web_euskadi/es_6313/sitio_web_euskadi.html)



[http://www.euskadi.net/r33-2288/eu/contenidos/informacion/mapa\\_web\\_euskadi/eu\\_6313/sitio\\_web\\_euskadi.html](http://www.euskadi.net/r33-2288/eu/contenidos/informacion/mapa_web_euskadi/eu_6313/sitio_web_euskadi.html)

[http://www.navarra.es/home\\_es/Navarra/Instituciones/Default.htm](http://www.navarra.es/home_es/Navarra/Instituciones/Default.htm)

[http://www.navarra.es/home\\_es/Navarra/272+Municipios/](http://www.navarra.es/home_es/Navarra/272+Municipios/)

[http://www.navarra.es/home\\_es/Gobierno+de+Navarra/Organigrama/Los+departamentos/](http://www.navarra.es/home_es/Gobierno+de+Navarra/Organigrama/Los+departamentos/)

[http://www.eke.org/eu/kultura/euskal\\_herria/iparralde/iparraldeko-herriak?set\\_language=eu](http://www.eke.org/eu/kultura/euskal_herria/iparralde/iparraldeko-herriak?set_language=eu)

#### 8. PuntuEus elkarteko kideak:

<http://www.puntueus.org/eu/puntueus-elkartea/>

#### 9. .eus erregistradoreak

<http://domeinuak.eus/en/erregistradoreak>

#### 10. Alderdi politikoak:

[http://gaindegia.org/eu/eh-gida/bilatzaile-aurreratua?title\\_field\\_value=&field\\_mota\\_tid=105&field\\_herri\\_value=&field\\_herria\\_idea\\_value=](http://gaindegia.org/eu/eh-gida/bilatzaile-aurreratua?title_field_value=&field_mota_tid=105&field_herri_value=&field_herria_idea_value=)

#### 11. Sindikatuak:

[http://gaindegia.org/eu/eh-gida/bilatzaile-aurreratua?title\\_field\\_value=&field\\_mota\\_tid=85&field\\_herri\\_value=&field\\_herria\\_idea\\_value=](http://gaindegia.org/eu/eh-gida/bilatzaile-aurreratua?title_field_value=&field_mota_tid=85&field_herri_value=&field_herria_idea_value=)

#### 12. Profesionalen elkargoak:

[http://gaindegia.org/eu/eh-gida/bilatzaile-aurreratua?title\\_field\\_value=&field\\_mota\\_tid=102&field\\_herri\\_value=&field\\_herria\\_idea\\_value=](http://gaindegia.org/eu/eh-gida/bilatzaile-aurreratua?title_field_value=&field_mota_tid=102&field_herri_value=&field_herria_idea_value=)



### 13. Teknologiaren eta ikerkuntzaren sektorea

[http://gaindegia.org/eu/eh-gida/bilatzaile-aurreratua?title\\_field\\_value=&field\\_mota\\_tid=96&field\\_herri\\_value=&field\\_herrialdea\\_value=](http://gaindegia.org/eu/eh-gida/bilatzaile-aurreratua?title_field_value=&field_mota_tid=96&field_herri_value=&field_herrialdea_value=)

### 14. Ezagutza- eta teknologia-parkeak:

[http://gaindegia.org/eu/eh-gida/bilatzaile-aurreratua?title\\_field\\_value=&field\\_mota\\_tid=88&field\\_herri\\_value=&field\\_herrialdea\\_value=](http://gaindegia.org/eu/eh-gida/bilatzaile-aurreratua?title_field_value=&field_mota_tid=88&field_herri_value=&field_herrialdea_value=)